


t x o s t e n a  
**2019**  
m e m o r i a



elkar-lan  
S.C.O.O.P.

KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA  
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS

“ELKAR-LAN, S.COOP.  
Kooperatibak Sustatzeko  
Elkarteak” 2019 Txosten  
honetan jasotzen du 2019  
ekitaldian zehar burutu  
duen kudeaketa, bere  
helburu soziala beteaz,  
hau da, Euskadin kooperatiba  
berrien eraketa sustatzea.

La Sociedad para la  
Promoción de Cooperativas  
ELKAR-LAN, S.COOP.  
recoge en la presente  
Memoria 2019 la gestión  
que ha desarrollado a lo  
largo del ejercicio 2019  
en el cumplimiento de su  
objeto social de promover  
la creación de nuevas  
Cooperativas en Euskadi.

**t x o s t e n a**  
**2019**  
**m e m o r i a**



**elkar-lan**  
S.C.OOP.

KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA  
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS



## aurkibideaíndice

I. ORGANO SOZIALAK	I. ÓRGANOS SOCIALES	5
II. LEHENDAKARIAREN AGURRA	II. SALUDO DEL PRESIDENTE	9
III. INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA	III. INFORMACIÓN Y DIFUSIÓN	13
IV. PRESTAKUNTZA	IV. FORMACIÓN	31
V. KOOPERATIBAK ERATZEKO LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZA	V. ASESORAMIENTO Y CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS	35
VI. TUTORETZA / JARRAIPENA	VI. TUTORIZACIÓN / SEGUIMIENTO	39
VII. 2019AN ELKAR-LAN, S. COOP. SOZietateARI LOTU ZAIZKION KOOPERATIBA BERRIEN ZERRENDA	VII. RELACIÓN DE NUEVAS COOPERATIVAS VINCULADAS A ELKAR-LAN, S. COOP., EN 2019	41
VIII. ELKAR-LAN, S. COOP. SOZietateARI DIRUZ LAGUNDU DIOTEN KOOPERATIBEN ZERRENDA	VIII. RELACIÓN DE COOPERATIVAS QUE HAN COLABORADO ECONÓMICAMENTE CON ELKAR-LAN, S. COOP.	87





**ORGANO SOZIALAK**  
**ÓRGANOS SOCIALES**



# BATZAR NAGUSIA ASAMBLEA GENERAL



EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN  
KONTSEILUA (EKGK-CSCE)  
CONSEJO SUPERIOR DE COOPERATIVAS  
DE EUSKADI (CSCE)



EUSKADIKO KOOPERATIBEN  
KONFEDERAZIOA (EKK-CCE)  
CONFEDERACIÓN DE COOPERATIVAS  
DE EUSKADI (CCE)

**KONFEKOOP**



**ERKIDE**  
Euskadiko Lan Elkarteen, Irakaskuntza, Kontsumo  
eta Kreditu Kooperatiben Federazioa  
Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado,  
Enseñanza, Consumo y Crédito de Euskadi

EUSKADIKO LAN ELKARTEEN, IRAKASKUNTZA, KONTSUMO  
ETA KREDITU KOOPERATIBEN FEDERAZIOA  
FEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE TRABAJO ASOCIADO,  
ENSEÑANZA, CONSUMO Y CRÉDITO DE EUSKADI

## KONTSEILU ERREKTOREA CONSEJO RECTOR



LEHENDAKARIA  
PRESIDENTE

Agustín  
Mendiola Gorospe  
ERKIDE



LEHENDAKARIORDEA  
VICEPRESIDENTE

Mikel  
Larrea Azpeitia  
KONFEKOOP



IDAZKARIA  
SECRETARIA

Rosa  
Lavín Ibarra  
ERKIDE

## KIDEAK VOCALES



Aitor  
Irure Espín  
ERKIDE



Juan Manuel  
Cano Pérez  
ERKIDE



Belén  
Balerdi Ozaeta  
CSCE-EKGK



Pablo  
Durana Duque  
CSCE-EKGK



Patxi  
Olabarria Furundarena  
KONFEKOOP

## ZUZENDARIA DIRECTOR



Fco. Javier  
Sanz Santaolalla





**LEHENDAKARIAREN AGURRA**  
**SALUDO DEL PRESIDENTE**

ELKAR-LAN, S. COOP. sozietateak oso lan handia eta emankorra egin du 2019ko ekitaldian, Euskadin 123 enpresa kooperatiba berriren eraketan hartu baitu parte. Horrela, Euskal Kooperatiben Mugimendua handitu eta indartu egin da, ELKAR-LAN, S. COOP. sozietateak modu kooperatiboan sustatutako enpresa-ekimen berriak osatzen dituzten pertsona eta proiektu guztiak atxiki baitzaizkio.

Joseph Alois Schumpeter ekonomialari ospetsuak zioenez, ekintzaile berriak behar ditugu; beharrezkoak dira gizartea osasuntsu eta etengabe garatzen jarraitzeko.

Ekintzailetza-politikek emaitza positiboak izan ditzaten, ezinbestekoa da ekintzaileek beharrezko laguntza jasotzea, eta ELKAR-LAN, S. COOP. sozietateak laguntza bikaina ematen du; alde batetik, zehaztasun teknikoagatik, eta, bestetik, ideia berriak kooperatiba baten bidez islatu nahi dituzten pertsonen laguntzeko boka-zioagatik.

2019an ELKAR-LAN, S. COOP. sozietatearen parte-hartzeari esker abian jarritako 123 proiektuak oso aberasgarriak dira, askotarikoak direlako; besteak beste, industrian, ehungintzan, ostalaritzan, eraikuntzan, irakaskuntzan, kulturen eta IKTetan sortu dira. Horrek esan nahi du sozietate kooperatiboek edozein sektoretan jardun dezaketela, baldin eta ekonomikoki bideragarriak badira, eta proiektua osatzen duten pertsonen bokazio demokratikoa, solidarioa eta parte-hartzailea badute.

La labor desarrollada por ELKAR-LAN, S. COOP. en el ejercicio 2019 ha sido muy amplia y fructífera, ya que se ha plasmado en la participación en la constitución de 123 nuevas empresas Cooperativas en Euskadi, con lo que se agranda y fortalece el Movimiento Cooperativo Vasco, incorporando en su seno a las personas y proyectos que conforman las nuevas iniciativas empresariales promovidas por ELKAR-LAN, S. COOP. al modo cooperativo.

Como señalaba el famoso economista Joseph Alois Schumpeter, necesitamos contar con nuevas personas emprendedoras, son necesarias para poder mantener a la sociedad sana y en constante evolución.

Para que las políticas de emprendimiento den sus frutos positivos, es necesario que los emprendedores cuenten con los acompañamientos necesarios, y ELKAR-LAN, S. COOP. es un excelente acompañamiento por su rigor técnico y vocación de apoyo a las personas que poseen nuevas ideas empresariales que desean plasmarlas en forma cooperativa.

Los 123 proyectos puestos en marcha en 2019 en los que ha participado ELKAR-LAN, S. COOP. tienen también la riqueza de su gran diversidad porque se extienden a áreas que van desde el sector industrial, al textil, la hostelería, la construcción, enseñanza, cultura, TICs, etc., lo que significa que cualquier tipología sectorial puede concretarse en una Sociedad Cooperativa si es económicamente viable y en su faceta humana y social las personas que conforman el proyecto tienen una vocación democrática, solidaria y participativa.

Halaber, ELKAR-LAN, S. COOP. sozietateak lan joria egin du kooperatiben mugimendua hainbat erakundetan zabaltzen, hala nola Euskadiko aholkularitza-enpresetan, enpresen garapenerako agentzietan eta elkargo profesionaletan. Izan ere, dagoeneko martxan dauden ekintzaileri lagundu egin behar zaie, baina, nire ustez, funtsezkoa da gure gizartean kooperatiba-eredua eta bere abantailak etengabe azaltzea eta hedatzea.

Emaitza horiek lortzeko, ELKAR-LAN, S. COOP. sozietatean lan egiten duten pertsonak ahalegin handia egin behar izan dute. Eta ahalegin hori baloratu, aitortu eta nabarmendu egin nahi dut; bestela, ezinezkoa izango baitzen 2019ko Memoria honetan jasotako emaitzak lortzea.

Agustín Mendiola Gorospe  
Lehendakaria

ELKAR-LAN, S. COOP. ha llevado a cabo también una gran labor en materia de difusión cooperativa ante diversas entidades, tales como las asesorías y consultorías de Euskadi, las Agencias de Desarrollo empresarial y los colegios profesionales. Porque es necesario atender a los emprendedores ya en marcha, pero estimo que también es fundamental proyectar y difundir de forma permanente el modelo cooperativo y sus ventajas en la sociedad que nos circunda.

Los resultados obtenidos han requerido de una gran dedicación de esfuerzos por parte de las personas que trabajan en ELKAR-LAN, S. COOP., trabajo que quiero valorar, reconocer y destacar porque sin este trabajo los frutos recogidos en esta Memoria 2019 no hubieran sido posibles.

Agustín Mendiola Gorospe  
Presidente

## GURE ESKER ONA

ELKAR-LAN, S. COOP. sozietateko Kontseilu Errektoreak eskerrak eman nahi dizkie kooperatibako langile guztiei, 2019an egindako lan handiagatik, eta, aldi berean, bide emankor horretan jarraitzera animatu nahi ditu.

Gure esker ona, halaber, laguntza eskaini diguten erakunde publiko eta pribatu guztiei. Aipamen berezia egin nahi diegu Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzari, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari eta Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailari.

Eta, jakina, gure esker ona ELKAR-LAN, S. COOP. kooperatibako hiru erakunde bazkideetako (Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa eta Euskadiko Kooperatiben Federazioa) arduradunei, bai eta laguntza eskaini diguten gainerako kooperatibei ere (2019ko memoria honetan jasota dago zerrenda).

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu ELKAR-LAN, S. COOP. sozietatearekin lankidetzan aritu diren aholkularitza-enpresei, garapen-agentzietan, udal-erakundeei eta bestelako erakundeei. Horiei guztiei esker, oso emaitza onak lortu ditugu sustapen kooperatiboaren arloan, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan, 123 kooperatiba sortzen lagundu baitute.


## AGRADECIMIENTOS

El Consejo Rector de ELKAR-LAN, S. COOP. quiere agradecer al conjunto de las personas trabajadoras que forman parte de ELKAR-LAN, S. COOP. por el gran trabajo que han llevado a cabo en 2019, a la par que los anima a seguir por este fructífero camino.

Agradecemos también al conjunto de instituciones públicas y privadas que nos han ofrecido su colaboración y en especial a la Dirección de Economía Social del Departamento de Trabajo y Justicia del Gobierno Vasco, al Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia y al Departamento de Desarrollo Económico y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava.

Y, por supuesto, a los responsables de las tres entidades socias de ELKAR-LAN, S. COOP. (Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, Confederación de Cooperativas de Euskadi y Federación de Cooperativas de Euskadi), así como a las Cooperativas que nos han apoyado y cuya relación se recoge en el interior de esta Memoria 2019.

Extendemos también nuestro agradecimiento al conjunto de asesorías, Agencias de Desarrollo, entidades municipales y otras instituciones que han colaborado con ELKAR-LAN, S. COOP. para hacer posible los resultados que hemos obtenido en materia de promoción cooperativa y que se han concentrado principalmente en el apoyo a la constitución de 123 Cooperativas en la Comunidad Autónoma Vasca.



**INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA**  
**INFORMACIÓN Y DIFUSIÓN**

Poz handiz esan dezakegu gure hamazazpigarren ekitaldiaren amaieran kudeaketa-planean ezarritako aurreikuspen guztiak gainditu ditugula, eta, bereziki, gure lehentasunezko helburua betetzea lortu dugula; alegia, kooperatiba berriak sortzen laguntzea. Horretarako, gure sozietate-eredu bereziaren berri emateko jarduera gehiago egin ditugu, eredu hori baita bazkideen partaidetza eraginkortasunez eta legez ahalbidetzen duen bakarra.

Gaur egun enpresetan pertsonen benetako partaidetza garrantzia aitortzen ari dela kontuan hartuta, berretsi egiten dugu pertsonen partaidetza-eredu gorenaren sozietate kooperatiboa dela, Gizarte Ekonomiako sozietate-mota guztien artean.

Gure hartzaile potentzialeari kooperatibak zer diren jakinarazten jarraitzen dugu: ezaugarriak, barne-mailan autoerregulatzeko aukera, zerga-erregimen berezia, berariazko laguntzak, kontabilitate-berezitasunak, lan elkartuko kooperatibak Gizarte Segurantzako araubide orokorrean edota langile autonomoen araubide berezian kokatzeko aukera, eta abar. Azken buruan, beste sozietate-eredu batzuen aldean kooperatibak dituen desberdintasunen eta onuren berri ematen dugu.

Sortu ginenetik, kooperatiba-eredua zabaltzen eta gomendatzen laguntzen diguten erakundeekin eta pertsonen sare bat sortzearen, mantentzearen eta handitzearen alde egin dugu, eta gure esker ona adierazi nahi diegu, lan bikaina egin dutelako, eta gurekin jarraitzea animatu nahi ditugu, gure eredu gero eta ezagunagoa izan dadin. Horregatik guzti-gatik, gure berri zuten pertsonekin eta erakundeekin genituen harremanak zaindu eta indartu ditugu, eta, aldi berean, harremanak sortu ditugu beste erakunde eta pertsona batzuekin, ELKAR-LAN, S. COOP. sozietatearen errealitatea eta lankidetzarako bideak ezagutarazteko.

Hona hemen helburu hori lortzeko burutu ditugun jarduerak:

Hemos cerrado nuestro decimoséptimo ejercicio con la satisfacción de haber superado todas las previsiones fijadas en nuestro plan de gestión y, especialmente, al haber podido llevar a cabo el cumplimiento de nuestro objetivo prioritario, que no es otro que contribuir a la creación de nuevas Cooperativas, para lo cual hemos intensificado todas nuestras actuaciones de difusión, de nuestro peculiar modelo societario, que es el único que posibilita de forma real y legal, la participación de las personas socias que las integran.

Seguimos reiterando, más aún en estos momentos en los que se está reconociendo la importancia de la participación real de las personas en las empresas, que la sociedad participada por excelencia, en su máxima expresión, dentro de la diferentes modalidades societarias de la Economía Social, es la Sociedad Cooperativa.

Seguimos dando a conocer, entre nuestros potenciales destinatarios, lo que es una Cooperativa, sus peculiaridades, su posibilidad de autorregularse de forma interna, el régimen fiscal especial que tienen, sus ayudas específicas, las especialidades contables, la posibilidad de optar/elegir el encuadramiento en la Seguridad Social, en el caso de las Cooperativas de Trabajo Asociado, entre el Régimen General y el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos, en definitiva, resaltando sus ventajas y sus diferencias respecto a otras configuraciones societarias.

Desde nuestra puesta en marcha, hemos apostado por la generación, mantenimiento y crecimiento de una red de entidades y personas colaboradoras en toda nuestra actividad de difusión y prescripción del modelo cooperativo, y queremos dejar constancia de nuestro agradecimiento expreso, por su magnífica labor y animarlas a que continúen con nosotros para que cada vez sea más conocido nuestro modelo. Por todo ello, hemos atendido y reforzado las relaciones con las personas y entidades que ya tenían conocimiento de nuestra existencia y, al mismo tiempo, hemos gestionado y generado con nuevas entidades y personas, los correspondientes contactos para darles a conocer la realidad de ELKAR-LAN, S. COOP. y las posibles vías de colaboración que les brindamos.

Para abordar dichos objetivos se han realizado las siguientes actuaciones:

## **1.- ELKAR-LAN, S. COOP. ETA BERAREN JARDUERAK AURKEZTEKO BANAKAKO BILERAK ETA DAGOENEO EZAGUTZEN GAITUZTEN ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

Honako erakunde hauekin bildu gara ildo horretan:

### **ENPRESA- ETA BERRIKUNTZA-ZENTROAK ETA ENPRESAK SUSTATZEKO ZENTROAK**

Eutsi egin diegu zentro horiekiko harremani, bai haiek eskatuta, bai gure ekimenez.

### **TOKIKO GARAPEN-AGENTZIAK, KUADRILLAK ETA BEHARGINTZAK**

Horiekin guztiekin izan ditugu harreman onak eta zuzenak, bakoitzak izendatutako solaskideen bidez, eta, eskatu digutenean, eredu kooperatiboa ezagutu nahi duten sustatzaileekin bilerak egin ditugu euren lokaletan. Urrats hori ezinbestekoa da sustatzaileek kooperatiba-elkarteen eredu ezagutu dezaten, eta hausnar dezaten ea komeni zaien euren enpresa-proiektua kooperatiba gisa gauzatea, sozietateak eratzeko dauden aukera guztien artean.

Ekitaldian zehar, Arabako garapen-agentzia hauek bisitatu ditugu eta guztiekin egon gara harremanetan: Agurain eta Gasteizko kuadrillak, eta Audio. Bizkaian, honako Behargintza hauekin jardun dugu: Basauri-Etxebarri, Bermeo, Enkatur, Erandio, Ermua, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxolan, Inguralde, Leioa, Sestao, Santurtzi, Sondika, Txorierri, Bilbao Ekintza, eta Enplegu eta Ekintzailatza Foru Agentzia (DEMA). Gipuzkoako tokiko garapenerako agentziei dagokionez, hauek izan dira: Beterri-Buruntza Udalak, Donostia Sustapena SA, Urola Kostako Udal Elkarteak, Debegesa, Ugassa, Oarsoaldea, Debagoieneko Mankomunitatea, Bidasoa Bizirik, Iraurgi Berritzen eta Tolosaldea Garatzen.

Aipamen berezia merezi dute Getxolanek, DEMAK eta Ermuko Behargintzak.

Getxolani dagokionez, ekitaldi honetan, aurrekoetan bezala, enpresa-kudeaketaren arloan antolatutako dituzten ikastaro guztietan hartu dugu parte (9 ikastaro-

## **1.- REUNIONES INDIVIDUALES DE PRESENTACIÓN DE ELKAR-LAN, S. COOP., ASÍ COMO DE SUS ACTIVIDADES Y RELACIONES CON ENTIDADES QUE YA NOS CONOCEN**

Estas reuniones, se han celebrado con las entidades siguientes:

### **CENTROS DE EMPRESAS E INNOVACIÓN Y CENTROS DE PROMOCIÓN EMPRESARIAL**

Se han mantenido contactos con dichos centros, tanto a instancia de ellos como por nuestra propia iniciativa.

### **AGENCIAS DE DESARROLLO LOCAL, CUADRILLAS Y BEHARGINTZAK**

Hemos mantenido con todas ellas contactos fluidos y directos con las personas designadas como interlocutoras y cuando éstas así nos lo han requerido, hemos asistido a reuniones que hemos mantenido con dichas entidades, en sus locales, con las personas promotoras interesadas en conocer el modelo cooperativo, paso este imprescindible para que podamos hacer reflexionar a las personas promotoras sobre la conveniencia de poder realizar su proyecto empresarial en la forma societaria cooperativa, así como para que conozcan dicho modelo y puedan barajarlo entre las diferentes opciones societarias.

En este ejercicio hemos visitado y mantenido relaciones con las siguientes Agencias de Desarrollo Local de Araba: Cuadrillas de Salvatierra y Vitoria-Gasteiz; Audio y, en Bizkaia: Behargintzak de Basauri-Etxebarri, Bermeo, Enkatur, Erandio, Ermua, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxolan, Inguralde, Leioa, Sestao, Santurtzi, Sondika, Txorierri, Bilbao Ekintza y la Agencia Foral de Empleo y Emprendimiento DEMA; y con las Agencias de Desarrollo Local de Gipuzkoa siguientes: Beterri-Buruntza Udalak, Fomento San Sebastián, S.A., Urola Kostako Udal Elkarteak, Debegesa, Ugassa, Oarsoaldea, Debagoieneko Mankomunitatea, Bidasoa Activa, Iraurgi Berritzen y Tolosaldea Garatzen.

Unas menciones especiales se merecen Getxolan, DEMA y la Behargintza de Ermua.

A Getxolan, porque hemos participado en todos los cursos de gestión de empresas que han organizado en este ejercicio (9 cursos), al igual que en ejercicios

tan), bertaratutako sustatzaileei eredu kooperatiboa azaltzeko. Aukera hori eman izana eskertzen diegu, gure eredu zabaltzen laguntzen baitigu, gure azalpenak entzun ondoren sustatzaileek edozer hautatzen dutela ere.

Orobat, Ermuko Behargintzaren kasuan, erakunde horretako arduradunak berariaz eskatuta, euren lokaletan izan gara eredu kooperatiboan interesa duten sustatzaileei laguntzeko.

DEMAren kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentzia den aldetik, antolatu dituen ekitaldi guztietan hartu dugu parte. Halaber, oso harreman onak eta jarraituak izan ditugu agentziak gurekin aritzeko izendatutako pertsona guztiekin, bereziki teknikariek, sozietate kooperatiboaren ereduaren alde egin duten ekintzaile guztien proiektuetan. Agentziako Zerbitzu Orokorren zuzendari Beatriz Morcilloekin ere oso harreman estua izan dugu. Eta Bizkaia SAREKIN ekintzaitza-sarean ere lankidetzan jardun dugu.

## UDALAK

Tokiko garapen-agentziarik ez duten EAEko udalei gure erakundea ezagutzera emateko asmoz, 26 bisita pertsonalizatu egin ditugu alkateekin, zinegotziekin eta horiek eskuordetuta enplegu-arloaz edo sustatzaile edo ekintzaileen arretaz arduratzen diren teknikariek.

## GIZARTE-EKONOMIAKO ZUZENDARITZA

Jokin Díaz Arsuaga gizarte-ekonomiako zuzendariari eta Alfredo Ispizua (aholkularitza juridikoaren arduraduna), Ander Rahm (Laguntzak) eta Joseba Linaza (Laguntzak) teknikariei 2018ko Enpresa Ekimen Kooperatiboaren Behatokiari buruzko XIV. Txostena aurkeztu genien (Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren egoitzan, Gasteizen, 2019-11-28an).

## LANBIDE

Harremanak izan ditugu Amurrio, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Donostia, Getxo, Irun, Oion, Portugalete eta Gasteizko bulegoekin.

precedentes, para exponer el modelo cooperativo a los promotores asistentes, lo cual agradecemos, ya que nos facilita la difusión de nuestro modelo, sin menoscabo de la elección que al efecto realicen los promotores.

Así mismo, con la Behargintza de Ermua, hemos comparecido por petición expresa de la persona responsable de la citada entidad, en sus locales, para atender a los promotores interesados en el modelo cooperativo.

Con DEMA, como Agencia Foral de Empleo y Emprendimiento, promovida por la Diputación Foral de Bizkaia, hemos participado en todos los eventos que ha convocado y organizado y así mismo, hemos mantenido contactos muy fluidos y continuos con todas las personas designadas como nuestras interlocutoras, especialmente sus técnicas, en todos aquellos proyectos en los que las personas emprendedoras se decantan por la configuración societaria de la Cooperativa, así como con su Directora de Servicios Generales Dña. Beatriz Morcillo. Y también estamos colaborando en la red de emprendimiento de Bizkaia SAREKIN.

## AYUNTAMIENTOS

Con el objetivo de dar a conocer nuestra entidad a Ayuntamientos de la CAPV que no tienen en sus localidades Agencias de Desarrollo Local, hemos realizado 26 visitas personalizadas, con sus alcaldes y alcaldesas, concejales y concejalas, así como las personas técnicas, en las que delegaban dicha función, por tener asignada el área de empleo o de la atención de personas promotoras/emprendedoras.

## DIRECCIÓN DE ECONOMÍA SOCIAL

Presentamos al Director de Economía Social, D. Jokin Díaz Arsuaga y a sus técnicos D. Alfredo Ispizua (Responsable de Asesoría Jurídica), D. Ander Rahm (Ayudas) y D. Joseba Linaza (Ayudas) el XIV Informe del Observatorio de Iniciativas Empresariales Cooperativas de 2018. (En la sede de la Dirección de Economía Social, Vitoria-Gasteiz, 28.11.2019).

## LANBIDE

Hemos mantenido relaciones con las oficinas de Amurrio, Barakaldo, Basauri, Bilbao, Donostia, Getxo, Irún, Oion, Portugalete y Vitoria-Gasteiz.

## **GIZARTE-SEGURANTZAREN DIRUZAINZA OROKORRA**

Hainbat gestio egin ditugu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko bulegoetako teknika-riekin, ekitaldian zehar sortu ditugun kooperatiben beharren arabera.

## **ESTATUKO ENPLEGU-ZERBITZU PUBLIKOA (SEPE)**

Hainbat gestio eta bilera egin ditugu Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE) EAeko probintzia-zuzendaritzetako arduradun eta teknikariek, baita tokiko bulego gehienekin ere.

## **MERKATARITZA-GANBERAK**

Harreman ugari izan dugu ganbera guztiekin. Horretaz gain, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberetako Enpresak Sortzen eta Sendotzen Laguntzeko Zerbitzutik bidali dizkiguten sustatzailerekin bildu gara.

## **KONTSULTORETZAK ETA AHOLKULARITZAK**

Arreta pertsonalizatu berezia eskaintzen jarraitzen dugu, 2019ko Memoriaren kapitulu honetako 10. atalean agertzen den bezala.

## **FUNDAZIOAK ETA ELKARTEAK**

Honako hauekin izan dugu harremana:

- Michelin Fundazioa
- Novia Salcedo Fundazioa
- Azaro Fundazioa
- Gaztenpresa Fundazioa
- Mugarik Gabeko Ekonomialariak Fundazioa
- Enpresa Garapena Bultzatzeko Elkarte (DEMA)
- Mundukide Fundazioa
- Lan Enpresen Nafarroako Elkarte (ANEL)
- Bizkaiko Work-Lan elkarte
- Arabako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkarte (AMPEA)
- Sestaoko Jostintzaren Lagunak Kultur Elkarte
- Kooperatiba Zuzenbideko Nazioarteko Elkarte (AIDC)

## **TESORERÍA GENERAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL**

Se han realizado diferentes gestiones con las técnicas y técnicos de las oficinas de la Tesorería General de la Seguridad Social de cada uno de los Territorios Históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, en función de las necesidades de las Cooperativas que hemos constituido a lo largo del ejercicio.

## **SERVICIO PUBLICO DE EMPLEO ESTATAL (SEPE)**

Se han realizado diferentes gestiones y reuniones con las personas responsables y técnicas de las tres Direcciones Provinciales de la CAPV del Servicio Público de Empleo Estatal (SEPE), así como en la mayoría de su red de oficinas locales.

## **CÁMARAS DE COMERCIO**

Hemos tenido fluidas relaciones con todas ellas y se ha atendido a las personas promotoras que nos han remitido desde el Servicio de Apoyo a la Creación y Consolidación de Empresas de las Cámaras de Comercio de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

## **CONSULTORÍAS Y ASESORÍAS**

Siguen siendo objeto de una especial atención personalizada, tal y como se refleja en el apartado 10 de este capítulo de la Memoria 2019.

## **FUNDACIONES Y ASOCIACIONES**

Se han mantenido relaciones con:

- Fundación Michelin
- Fundación Novia Salcedo
- Azaro Fundazioa
- Fundación Gaztenpresa
- Fundación Economistas Sin Fronteras
- Asociación de Apoyo al Desarrollo Empresarial (DEMA)
- Mundukide Fundazioa
- Asociación Navarra de Empresas Laborales (ANEL)
- Asociación Work-Lan de Bizkaia
- Asociación de Mujeres Profesionales y Empresarias de Álava (AMPEA)
- Asociación Cultural Amigas de la Costura de Sestao
- Asociación Internacional de Derecho Cooperativo (AIDC)

## **FORU-ALDUNDIAK**

Harremanetan egon gara gure autonomia-erkidegoko hiru lurralde historikoetan sustatutako kooperatibentzat interesgarriak diren eskumenak eta erantzukizunak dituzten sailekin. Dena den, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin izan ditugu harremanik estuenak; Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionez, langabezian eta bazterketa-arriskuan dauden pertsonen autoenplegua eta enpresen sorruntza sustatzeko 2019ko ekitaldiko dirulaguntza-deialdien bidez (34/2019 Foru Dekretua, apirilaren 2koa), eta, Arabako Foru Aldundiari dagokionez, gizarte-eremuan lan-sozietateak eta sozietate kooperatiboak sustatzeko eta eratzeko laguntza-lerroaren oinarri arautzaileen eta deialdiaren bidez (68/2018 Foru Dekretua, abenduaren 21koa).

### **BIZKAIKO FORU-ALDUNDIKO ENPLEGUA, GIZARTE-INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA ETA DEMA**

Sail horrek DEMAren (Enplegu eta Ekintzailtza Foru Agentziaren) bidez Bizkaia SAREKIN Ekintzailtza Sarea sortzeko sustatutako proiektuarekin bat egin dugu. Ekitaldi honetan, Enpresak Sortu eta Martxan Jartzeko Taldean hartu dugu parte, 2019-01-17an eta 2019-09-19an gure egoitza sozialean egindako bileretan. Gainera, 2019-04-12an YouTube bidez konektatutako ekitaldian ere izan ginin.

### **EUSKADIKO TOKIKO GARAPEN-AGENTZIEN ELKARTEA (GARAPEN)**

Harreman onak ditugu elkarteko gerente Elisabet Urbietarekin eta Zerbitzu Orokorretako arduradun Ainar Egiluzekin, sozietate kooperatiboaren ereduaren bidez gauzatu daitezkeen autoenplegu kolektiboko proiektuekin zerikusia duten gai guztietan.

### **MURTZIAKO ESKUALDEKO KOOPERATIBEN ELKARTEA (UCOMUR)**

Erakunde horrek antolatutako KAFE KOOPERATIBOAK ekitaldira joan ginin, eta, ondoren, Juan Antonio Pedreño COCETAko lehendakari gisa egindako lana aintzatesteko ekitaldira. Lehendakari-kargua utzi egin du, 14 urtez aritu ondoren; era berean, 30 urte baino gehiago eman ditu Kontseilu Errektorean (Murtzia: 2019-06-13).

## **DIPUTACIONES FORALES**

Se han mantenido relaciones con los Departamentos, con competencias y responsabilidades de interés para las Cooperativas que hemos promovido, de los tres Territorios Históricos de nuestra Comunidad Autónoma, si bien de forma más estrecha lo hemos hecho con la Diputación Foral de Bizkaia a través de las convocatorias de la concesión de subvenciones para el fomento del autoempleo y la creación de empresas por personas desempleadas y en riesgo de exclusión, para el ejercicio 2019 (Decreto Foral 34/2019, de 2 de abril) y con la Diputación Foral de Araba, a través de las bases reguladoras y la convocatoria de la línea de ayudas para el apoyo a la promoción y constitución de sociedades laborales y cooperativas en el ámbito social (Decreto Foral 68/2018, de 21 de diciembre).

### **DEPARTAMENTO DE EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL E IGUALDAD DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y DEMA**

Formamos parte del proyecto que promovió el citado Departamento, a través de DEMA como Agencia Foral de Empleo y Emprendimiento, en la creación de la Red de Emprendimiento de Bizkaia SAREKIN, y durante el presente ejercicio hemos participado en el Grupo de Creación y Puesta en Marcha de Empresas, en sus reuniones de 17.01.2019; 19.09.2019 y 14.11.2019, que tuvieron en nuestra sede social, además de haber participado en un acto interconectado vía YouTube el 12.04.2019.

### **ASOCIACIÓN DE AGENCIAS DE DESARROLLO LOCAL DE EUSKADI (GARAPEN)**

Mantenemos relaciones fluidas con su Gerente Dña. Elisabet Urbieto y con la responsable de Servicios Generales Dña. Ainar Egiluz, para todas aquellas cuestiones que tienen que ver con proyectos de autoempleo colectivo en forma societaria cooperativa.

### **UNIÓN DE COOPERATIVAS LA REGIÓN DE MURCIA (UCOMUR)**

Asistimos al evento organizado por dicha entidad, denominado CAFÉ COOPERATIVO, y al posterior acto de reconocimiento a la labor desplegada por D. Juan Antonio Pedreño como presidente de COCETA, cargo que dejaba tras 14 años como máximo mandatario, y con más de 30 años formando parte de su Consejo Rector (Murcia: 13.06.2019).

## **LAN ELKARTUKO KOOPERATIBEN ESPAINIAKO KONFEDERAZIOA (COCETA)**

Harreman onak ditugu Konfederazioko zuzendari Paloma Arroyorekin eta erakunde hori osatzen duten gainerako pertsonekin, Estatuaren eskumenekoak diren kooperatiba-arazo guztietan.

Murtzian 2019-06-14an egindako Ohiko Batzar Nagusian izan ginen.

## **EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA (KONFEKOOP)**

Irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauaren proiektuarekin lotutako bilera batean izan ginen, honako hauekin batera: KONFEKOOPeko lehendakari Rosa Lavin, ERKIDeko zuzendari Agustin Mendiola, Bizkaiko Foru Ogasuneko zuzendari Aitor Soloeta eta zuzendariorde Iñaki Alonso Arce (Bizkaiko Foru Ogasuna. Bilbo, 2019-01-14).

CEPESeko lantaldean sartu gara, Kooperatiben zerga-araubideari buruzko abenduaren 19ko 20/1990 Legea aldatzeko proposamen bat egiteko, eta sartu ondoren antolatu diren hiru bileretan hartu dugu parte (CEPES, Madril, 2019-07-17; 2019-10-02 eta 2019-12-04).

Lehen aldiz, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuaren egoitzara deitu ziguten bilera batera. Bertan, Departamentuko gai interesgarriak aztertu genituen hainbat erakunde eta taldetako ordezkariekin. Jabier Larrañaga Garmendia, ogasun-diputatua, izan zen bilera-buru, eta hauek guztiak ere bertaratu ziren: Jokin Perona Lerchundi, ogasun-zuzendaria; Yolanda Domínguez Román, zerga-kudeaketako zuzendariorde nagusia; Iñigo Balerdi Lizarralde, araugintzako eta lege-aholkularitzako zerbitzu-burua; eta M. del Coro Pereiro Zabala, ikuskaritzako zuzendariorde nagusia (Errotaburu, Donostia, 2019-11-26).

## **UNIBERTSITATEAK ETA BESTELAKO ERAKUNDEAK**

Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Ekonomiako eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutuak / Gizarte Ekonomiako Behatokiak (GEZKI) eta Deustuko Unibertsitateko Gizarteko eta Zuzenbide Kooperatiboko

## **CONFEDERACIÓN ESPAÑOLA DE COOPERATIVAS DE TRABAJO ASOCIADO (COCETA)**

Mantenemos relaciones fluidas con su Directora Dña. Paloma Arroyo y las demás personas que integran dicha entidad, para todas aquellas cuestiones cooperativas cuya competencia sea del Estado.

Asistimos a su Asamblea General Ordinaria que tuvo lugar en Murcia, el 14.06.2019.

## **CONFEDERACIÓN COOPERATIVAS DE EUSKADI (KONFEKOOP)**

Asistimos a una reunión, relacionada con el proyecto de la Norma Foral del Régimen Fiscal de Entidades sin Fines Lucrativos y de los Incentivos Fiscales al Mecenazgo, junto con la presidenta de KONFEKOOP, Dña. Rosa Lavin y con el Director de ERKIDE, D. Agustin Mendiola, con el Director de Hacienda Foral de Bizkaia D. Aitor Soloeta y con el Subdirector D. Iñaki Alonso Arce. (Hacienda Foral de Bizkaia. Bilbao 14.01.2019).

Nos incorporamos en el Grupo de Trabajo de CEPES, para elaborar una propuesta de modificación de la Ley 20/1990, de 19 de diciembre, del Régimen Fiscal de Cooperativas, y participamos en las tres reuniones que se celebraron tras nuestra incorporación (CEPES, Madrid 17.07.2019; 02.10.2019 y 04.12.2019).

Nos convocaron por vez primera a un encuentro en la sede del Departamento de Hacienda y Finanzas de Gipuzkoa, con representantes de diversos organismos y colectivos, con el objeto de tratar temas departamentales de interés. que estuvo presidido por el Diputado de Hacienda, D. Jabier Larrañaga Garmendia, que estuvo acompañado del Director de Hacienda, D. Jokin Perona Lerchundi, la subdirectora General de Gestión Tributaria, Dña. Yolanda Domínguez Román), el Jefe de Servicio de Desarrollo Normativo y Asesoramiento Jurídico, D. Iñigo Balerdi Lizarralde, y por la Subdirectora General de Inspección, Dña. M<sup>a</sup> del Coro Pereiro Zabala. (Errotaburu, Donostia, 26.11.2019).

## **UNIVERSIDADES Y OTRAS ENTIDADES**

Hemos participado en eventos y reuniones de los Institutos Cooperativos y de Economía Social de la Universidad del País Vasco (GEZKI) y de la Universidad de Deusto, así como con Mondragón Uni-

Institutuak antolatutako ekitaldi eta bileretan parte hartu dugu, bai eta Mondragon Unibertsitateak, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak (Bizkaiko UNEDen zentro elkartua) eta Gasteizko Udalaren Enplegu eta Gizarte Garapen Iraunkorreko Sailak antolatutako ekitaldietan ere, memoria honetako 7. atalean azalduko dugunez.

## **2.- HERRI-ONURAKO ELKARTEA GARELA JAKINARAZTEA**

2005. urteaz geroztik, ELKAR-LAN, S. COOP. sozietatea, gauzatzen duen jarduera-mota dela eta, herri-onurako kooperatiba da, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuak 2005eko martxoaren 16an emandako AGINDUaren arabera (2005eko apirilaren 20ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua). Izan ere, agindu horrek herri-onurako elkarte izendatu zuen kooperatibak sustatzeko ELKAR-LAN, S. COOP. kooperatiba-sozietatea.

Gure jardueren hartzailerek herri-onurako izendapenaren berri izan dezaten, komunikazio- eta hedapen-ekintzak egin ditugu, agerian uzteko gure jarduerak Euskadiren interes orokorra sustatzen laguntzen dutela. Harro gaude horretaz, gure xedearekin eta kooperatibaren balio eta printzipioekin bat baitator.

## **3.- KOOPERATIBA BIHURTZEKO LAGUNTZEI ETA INTERESA DUTEN ENPRESAK BISITATZEARI BURUZKO ZIRKULARRAK EAE-KO ENPRESETAN MASIBOKI ZABALTZEA**

Berriazko zirkular baten bidez, kooperatibak ez diren EAEko enpresa txikiak kooperatiba bihurtzeko laguntzen berri eman du ELKAR-LAN, S. COOP. sozietateak.

Jarduera horien ondorioz, 26 enpresak erakutsi zuten zirkular horien edukiari buruzko interesa. Enpresa horietara bisita egin, beharrezko gestioak gauzatu eta bilerak edo harremanak finkatu ziren jabeekin edo akziodun nagusiekin, zuzenean eta isilpean.

## **4.- IRUDI KORPORATIBOA ETA WEBGUNEA ([www.elkarlan.coop](http://www.elkarlan.coop)).**

Gure euskarri grafikoak erabiltzen eta optimizatzen ari gara, gure irudi korporatiboa zabaltzeko; esate

bertsitatea, y con la Universidad Nacional de Educación a Distancia (Centro Asociado de la UNED de Bizkaia) y también en eventos organizados por el Departamento de Promoción del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de las tres Diputaciones Forales, tal como posteriormente se expondrá en el punto 7 de esta Memoria.

## **2.- DIFUSIÓN DE NUESTRA CONDICIÓN DE COOPERATIVA DE UTILIDAD PÚBLICA**

Desde el año 2005, ELKAR-LAN, S. COOP., por la actividad que realiza, es una Cooperativa de Utilidad Pública, a tenor de lo dispuesto en la ORDEN de 16 de marzo de 2005, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se declara de utilidad pública a la sociedad cooperativa denominada Sociedad para la Promoción de Cooperativas ELKAR-LAN, S. COOP. (Publicada en el Boletín Oficial del País Vasco de 20 de abril de 2005).

Y con el objetivo de que esta Declaración de Utilidad Pública sea conocida por los destinatarios de nuestras actuaciones, se han realizado las actuaciones de comunicación y de difusión, para poner de manifiesto que nuestras actividades están contribuyendo a la promoción del interés general de Euskadi, lo cual nos enorgullece, por ser coherente con nuestra misión y con los valores y principios cooperativos.

## **3.- DIFUSIÓN MASIVA DE CIRCULARES A EMPRESAS DE LA CAPV SOBRE AYUDAS PARA LA TRANSFORMACIÓN EN COOPERATIVAS Y VISITAS A LAS EMPRESAS INTERESADAS**

ELKAR-LAN, S. COOP. ha informado a las empresas pequeñas no Cooperativas, de la Comunidad Autónoma del País Vasco, mediante una circular específica, de las ayudas existentes para su transformación en Cooperativas.

Como fruto de estas actuaciones, se visitaron y se realizaron gestiones con 26 empresas que se interesaron por su contenido, manteniendo siempre las reuniones o relaciones con sus propietarios o con los accionistas mayoritarios, de forma directa y confidencial.

## **4.- IMAGEN CORPORATIVA Y PÁGINA WEB ([www.elkarlan.coop](http://www.elkarlan.coop))**

Estamos aprovechando y optimizando nuestros diferentes soportes gráficos, desde la memoria de acti-

baterako, jardueren memoria, triptikoak, zirkularrak, jardunaldien deialdiak eta web-orria (www.elkarlan.coop).

Gure web-orriari dagokionez, nabarmendu nahi dugu etengabe eguneratzen dela, sarean gehiago hedatzen ari dela eta ekitaldi honetan internet bidez kontsulta gehiago egin direla.

Gure mikrowebgunea (www.somoscooperativa.coop) bateratu egin dugu. Horrela, gure hasierako web-orriko edukiak eguneratzeaz gain, kooperatibisten kontakizunen bideoak eta gure jarduerari buruzkoak jarri ditugu.

## **5.- HARREMANAK AUTONOMIA-ERKIDEGOKO NOTARIOTZEKIN, KOOPERATIBAK ERATZEKO LANA ERRAZTEKO**

Kooperatiba-eredua hedatzea izanik gure helburu estrategikoetako bat, talde kualifikatu horrekin ere harreman estua mantentzen jarraitzen dugu. Horren ondorioz esan dezakegu oro har notariotzek era koordinatuan eta eraginkortasunez burutzen dituztela kooperatibak eratzeko izapideak. Azpimarratzekoa da, adibidez, notariotza batzuetan kooperatiba eratzeko eskrituraren euskarri elektronikoa erabiltzen dutela. Harreman zuzenak eta onak izan ditugu notariotzekin ekitaldi honetan; hau da, gure jarduerak finkatu egin ditugu.

## **6.- HEDABIDEETAN EGINDAKO ELKARRIZKETAK ETA PARTE-HARTZEAK**

Gure erakundea albistea izan da hainbat hedabideetan (telebista, irrati, egunkari eta ekonomia-arloko aldizkarietan), egin duen sustapen-jardueragatik. Aldizkari espezializatuetan ere agertu da, hala nola KOOP Euskal Enpresa Kooperatiboa, TU Lankide, Empresa y Trabajo Cooperativo eta Estrategia Empresarial aldizkarietan.

Horretaz gain, EAEko prentsa eta irrati garrantzitsuenetako batzuetan ere kolaborazioak egin ditugu, kooperatibak sustatzeko bokazioaren berri eman eta euskal gizartea kooperazioaren bidean bultzatzeko asmoarekin.

vidades hasta los trípticos, circulares, convocatorias de jornadas y la página web (www.elkarlan.coop), para difundir nuestra imagen corporativa.

En lo que se refiere a nuestra página web, queremos resaltar su actualización constante y su mayor difusión en la red, así como un incremento de las consultas por internet durante este ejercicio.

Hemos fusionado nuestra microweb www.somoscooperativa.coop, que supuso una actualización de contenidos de nuestra web inicial, así como la incorporación de videos con relatos de cooperativistas y sobre nuestra actividad.

## **5.- RELACIONES CON LAS NOTARÍAS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA PARA FACILITARLES SU TAREA EN LA CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS**

Siendo uno de nuestros objetivos estratégicos la difusión del modelo cooperativo, también con este colectivo tan cualificado hemos mantenido múltiples contactos y relaciones, y como consecuencia de ello, estamos percibiendo que, en general, las notarías están realizando las tramitaciones de las constituciones de Cooperativas de una forma más coordinada y eficiente, sobre todo con la utilización de la escritura de constitución de la Cooperativa en soporte electrónico en algunas notarías. Ha sido un año de actuaciones directas y fluidas que ha venido a consolidar nuestras actuaciones con las notarías.

## **6.- ENTREVISTAS Y PARTICIPACIONES EN MEDIOS DE COMUNICACIÓN**

Nuestra entidad ha sido noticia por su actividad promotora en diferentes medios de comunicación, tanto de televisión, radio, prensa diaria y de índole económica, así como en revistas especializadas tales como KOOP Euskal Enpresa Kooperatiboa, TU Lankide, Empresa y Trabajo Cooperativo, y Estrategia Empresarial.

También ha participado y colaborado en diversos medios de comunicación, tanto escritos como en las radios de mayor implantación en nuestra Comunidad Autónoma, con el objetivo de transmitir nuestra vocación de promoción cooperativa y animar a la sociedad vasca a emprender cooperativamente.

## 7.- BESTE HAINBAT EKITALDITAKO PARTAIDETZA

ELKAR-LAN, S. COOP. sozietatean lan egiten duten pertsonak honako ekitaldi hauetan zabaldu dute kooperatiba-eredua:

- Eusko Jaurlaritzak - SPRIk Brexitari buruz antolatutako jardunaldietan izan ginen (Euskalduna Jauregia, Bilbo, 2019-02-13).
- Advisory Board gisa parte hartu genuen Europako SIKE proiektu batean Realice-ren bidez (Deusto Kabi. Deustuko Unibertsitate Komertzialaren eraikina. Bilbo, 2019-02-14).
- IHOBek klima-aldaketari buruz antolatutako jardunaldi batean izan ginen (Euskalduna Jauregia. Bilbo, 2019-02-18).
- EKAI CENTER erakundearekin bildu ginen, kontratu daitezkeen zerbitzu publikoak kooperatibizatzeke aukerari buruzko iritzia emateko (Elkar-Lan, S. Coop. Bilbo, 2019-02-19).
- MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Izaskun Alzola-ren eta José Luis Abaunzen bideokonferentzia batean hartu genuen parte. Euskadiko Kooperatiben Legearen edukiari eta Euskadiko Kooperatiben Legearen aurreproiektuan jasotzen diren berrikuntza nagusiei buruzkoa izan zen (Elkar-Lan, S. Coop. Bilbo, 2019-03-01).
- Euskadiko Kooperatiben Lege berrian egindako aldaketei buruzko informazio-jardunaldian izan ginen. Justizia eta Lan Saileko aholkulari José Luis Aramendia Cordonek, gizarte-ekonomiako zuzendari Jokin Díazek eta gizarte-ekonomiako aholkularitza juridikoaren buru Alfredo Ispizuak aurkeztu zuten aurreproiektua (Miñako Parke Teknologikoko entzunaretoa, 2019-03-06).
- WORK-LANek antolatutako jardunaldi honetan hartu genuen parte: Nola egin aurre elkarrekin ekintzaitzaren erronkei, Bilbo Handiko gizarte-ekonomiaren ikuspegitik? (Deustuko Salestarrren Ikastetxea. Bilbo, 2019-03-07).
- ELKAR-LAN, S. COOP. sozietatearen aurkezpena ingelesez Europako SIKE proiektua osatzen duten erakundeentzat. Batzordearen bilerara ere deitu ziguten (Deustuko Unibertsitatea. Komertzialaren eraikina. Bilbo, 2019-03-11 eta 2019-06-11).

## 7.- PARTICIPACIÓN EN DIFERENTES EVENTOS

Las personas que integran ELKAR-LAN, S. COOP., han difundido el modelo cooperativo, en los eventos siguientes:

- Asistimos a la Jornas sobre el Brexit, organizada por el Gobierno Vasco - SPRI (Palacio de Euskalduna, Bilbao, 13.02.2019).
- Asistimos como Advisory Board en un proyecto europeo SIKE, por mediación de Realice (Deusto Kabi. Edificio de la Comercial de la Universidad de Deusto. Bilbao, 14.02.2019).
- Asistimos a una Jornada sobre el Cambio Climático, organizada por IHOB. (Palacio de Euskalduna. Bilbao, 18.02.2019).
- Nos reunimos con EKAI CENTER para dar nuestra opinión sobre la posibilidad de cooperativizar los servicios públicos que puedan ser objeto de contratación (Elkar-Lan, S. Coop. Bilbao, 19.02.2019).
- Participamos por videoconferencia con Dña. Izaskun Alzola y D. José Luis Abaunz, de MONDRAGON UNIBERTSITATEA, sobre el contenido de la impartición de clases sobre la Ley de Cooperativas de Euskadi y las principales novedades que se recogen en el anteproyecto de Ley de Cooperativas de Euskadi (Elkar-Lan, S. Coop. Bilbao, 01.03.2019).
- Asistimos a la Jornada informativa sobre las modificaciones introducidas en la nueva Ley de Cooperativas de Euskadi que expusieron el asesor del Departamento de Justicia y Trabajo, D. José Luis Aramendia Cordon, para la elaboración del anteproyecto, el Director de Economía Social, D. Jokin Díaz y D. Alfredo Ispizua, Responsable de la Asesoría Jurídica de la Dirección de Economía Social (Auditorio del parque tecnológico de Miñano, 06.03.2019).
- Asistimos y participamos a la Jornada organizada por WORK-LAN ¿Como afrontar juntas los desafíos del emprendimiento en clave de economía social del Gran Bilbao? (Colegio Salesianos de Deusto. Bilbao, 07.03.2019).
- Presentación, en inglés, de ELKAR-LAN, S. COOP., a las entidades integrantes del proyecto europeo SIKE y nos convocaron a la reunión de su Comité (Universidad de Deusto. Edificio de la comercial. Bilbao, 11.03.2019 y 11.06.2019).

- Prestakuntza kooperatiboa eman diegu NAFA-RROAKO RURAL KUTXAK Bizkaian dituen 34 bulegoetako pertsoneri (Nafarroako Rural Kutxaren Bulegoa. Basauri, 2019-03-12).
- BIZKAIKO ENPLEGU ETA EKINTZAILTZAKO ANEZKA programaren 3. urteurrena ospatzeko ekitaldian izan ginen, baita Víctor Kuppersen “Erronkei aurre egiteko gogo biziaren garrantzia” hitzaldian ere (Azkuna Zentroa. Bilbo, 2019-03-12).
- EROSKI S. COOP. sozietatearen 50. URTEURRENA ospatzeko ekitaldian izan ginen (Azkuna Zentroa. Bilbo, 2019-03-12).
- 2018ko JARDUEREN MEMORIARI eta ENPRESA-EKIMEN KOOPERATIBOEN BEHATOKIAREN XIII. TXOSTENARI buruzko prentsaurrekoa eman genuen (Ercilla hotela. Bilbo, 2019-03-22).
- Hitzarmena sinatu genuen Arabako Foru Aldundi-ko EKONOMIA-GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILAREkin, gizarte-arloko lan-sozietateak eta kooperatibak sustatzen eta eratzten laguntzeko programako erakunde laguntzaile gisa (Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Saila. Vitoria-Gasteiz, 2019-03-25).
- Eredu kooperatiboari buruzko prestakuntza eman genuen BIZKAIKO FORU-ALDUNDIAREN programa baterako. DEMAk kudeatu zuen programa hori: “Hariak maneiatur” DEMAn Enplegu eta Prestakuntza Programa, Sestaoko Joskintzaren Lagunak Kultur Elkartearekin lankidetzan bazterketa-arriskuan dauden pertsoneri laguntzeko (Sestao, 2019-03-27).
